

**TVE Kopako finalerdia**

La2 • 19:00etan

Erremonteko TVE Kopako lehenengo finalerdia jokatu dute Ezkurra-Imaz eta Matxin-Iriarte bikoteek, Hernaniko Galarretan.



**gaurko filmak** Ane Muñoz

■ **BUCHANAN CABALGA DE NUEVO.**

Budd Boetticher ezagunak, *western*-etan aditua bera, nahiko lan interesgarria gehitu zion genero horri 50eko hamarkadaren amaieran. Randolph Scott izarra rol nagusian jarri zuen, berriro. Arina da, entretenigarria eta zuzena, baina ez Boetticherren lan onenetakoa. Buchanan abenturazale bakartiaren ingurukoa da.

■ **LA FRONTERA.**

Txiletik datorrigun fim hau oso kuriooa da, zinemazaleek ez ezik gainontzekoek ere ikusi beharreko film zuzen eta ikusgarria. Kutsu politiko nabarmena du argumentuak, eta gertakari eta pertsonaia errealtan dago oinarritua; hain zuzen, Pinocheten aldeko agintarieko jarrera eta pentsamolde aurkakoa duen irakasle batek, erbestean, ugarte isil eta lasai batean biziko dituen egun zail, ilun eta latzak deskribatzen ditu, eta hantxe ezagutuko dituen pertsonaia bitxiez inguratuta biziko dituen istorio horiek amesgiroko irudi ederren bitartez azaltzen. Oso gomendagarria.

■ **LA AUSENCIA.**

Espainiak Frantziarekin eta Alemaniarekin ekoizkidetzan sortutako drama itogarri eta ilun hau Bruno Ganz miretsiak protagonizatu zuen. Trinko eta astun samarra da, baina aldi berean interesgarria. Agure bat, neska gazte bat, gudari bat eta jokalaritza bat dira ipuin baten antzera planteatuta dagoen istorioko pertsonaia nagusiak. Berezia da eta aukera ematea merezi du. Peter Handke idazleak zuzendu zuen.

■ **BLACK RAIN.**

Ridley Scott (*Blade Runner*, 1982) arrakastatsuen film ezagunetakoa da, Michael Douglasek eta Andy Garciak

*Capoteren hiltzaile hotzak  
Brooksen esku*

■ **A SANGRE FRIA.** Truman Capoteren eleberriz zoragarriaz egindako bertsio zinematografiko harrigarria da, oso interesgarria, besteak beste Richard Brooks maisuak aukeratutako errealizazio bikainari esker. Zuri-beltzezko *thriller* psikologiko ezerosoa da, gogorra, eta psikopata edo hiltzaile eroen inguruko film multzo zabalean garrantzitsuetakoa da. Kapritxoz, hotzean, sendi bat hiltzea erabaki duten bi lagun istorioa da, era miresgarrian kontatua.

<b>El rey de los osos</b> 1970, Ron Kelly, 93 m. 11:00 La2	♦♦	<b>Dimanche d'août</b> 1949, Luciano Emmer, 80 m. 23:45 Arte	♦♦♦
<b>Contagio mortal</b> 1995, David Delrieux, 86 m. 16:15 T5	♦♦	<b>La Frontera</b> 1991, Ricardo Larrain, 113 m. 00:10 La2	♦♦♦♦
<b>Buchanan cabalga de nuevo</b> 1958, Budd Boetticher, 76 m. 17:35 ETB2	♦♦♦	<b>Pasado mortal</b> 1995, Tibor Takacs, 85 m. 00:05 T5	♦♦
<b>En plein coeur</b> 1998, Pierre Jolivet, 100 m. 21:00 C(f)	♦♦	<b>A sangre fría</b> 1968, Richard Brooks, 128 m. 01:00 ETB2	♦♦♦♦
<b>Difficil de matar</b> 1990, Bruce Malmuth, 90 m. 22:00 T5	♦♦	<b>Black Rain</b> 1990, Ridley Scott, 122 m. 02:10 TVE1	♦♦♦
<b>Blues Brothers 2.000</b> 1998, John Landis, 118 m. 22:00 C+(e)	♦♦	<b>La ausencia</b> 1993, Peter Handke, 106 m. 02:05 La2	♦♦♦
<b>U.S. Marshals</b> 1998, Stuart Baird, 125 m. 23:25 C+(f)	♦♦	<b>Llegar a más</b> 1963, Jesus Fernandez Santos 03:55 La2	♦
<b>La séparation</b> 1994, Christian Vincent, 90 m. 23:20 F3	♦♦	<b>La banda de Buckeye</b> 1988, J.G. Compton 05:05 A3	♦♦

♦ TXARRA ♦♦ ESKASA ♦♦♦ BALEKOA ♦♦♦♦ ONA ♦♦♦♦♦ BIKAINA



Michael Douglas aktorea da *Black Rain* filmeko protagonista nagusia.

protagonizatua eta, oro har, akziozko zinta poliziako zuzen samartzat dut. New Yorkeko polizia batek Japoniako kale arriskutsuetan biziko dituen gorabeherak erakusten ditu. Trama poliziako arrunt samarrari da funtsean, baina efektu

garestiekin apaindua. Istorioko hori, Scott zuzendariak hain gustukoa duen estetikarekin filmatuta dago; zenbaitetan, irudiek bideo-kliparen itxura hartzen dute. Erritmoz arina da eta akziozko sekuentziak beteta dago.

**ETB 1**

- 06:30: Bertatik Bertara.
- 06:05: Superbat.  
Marrakzi bizidunak eta telesailak. 'Superheroiak', 'Pottokiak', 'Ninja dorkiak', 'Tom eta Jerry mutikotan', 'Yogiren lasterketa espaziala'.
- 09:05: Euskal Herriatik.
- 09:40: Gure lanbide zaharrak.
- 10:10: Sorginen laratza.
- 11:40: Bidaide.
- 12:55: Iparraldearen Orena.
- 13:00: Harriketarrak.
- 13:30: Gaur egun.
- 14:05: Goenkale.
- 14:45: Txirrita. Marrakzi bizidunak.
- 14:55: Galdestreet.
- 15:30: Egin kontu.
- 17:00: Bidaide. Dokumentalak. *Ushuaia. Australiako animaliak*.
- 18:15: Atlantidako printzea. Marrakzi bizidunak.
- 18:40: Addams familia. Marrakzi bizidunak.
- 19:05: Dinosauroen harana. Marrakzi bizidunak.
- 19:25: KTM.
- 20:28: Gaur Egun.
- 21:10: Bertatik Bertara.
- 22:00: Goenkale.
- 22:45: Pilota: Lau t'erdian, Euskal Herriko Txapelketa: Alustiza-Eugi.  
Eskuz binaka: Capellan-Arroyo II/Olaizola I-Apeztegia.
- 00:45: Boxeo izarrak. Pedro Mari Goikoetxeak borrokarik onenak aurkeztuko ditu.
- 02:05: Mendeari begira. Dokumentala.
- 03:05: Galdestreet.
- 03:30: Egin kontu.
- 05:05: 64. Telesaila.
- 05:25: Bi eta Bat.
- 06:00: Ikusgela.
- 06:45: Bost istorio kubatar. Dokumental saila.
- 07:10: Herri Musika Sorta. Dokumental saila.

**ETB 2**

- 08:15: Del pais de los vascos.
- 08:45: Herri musika sorta.
- 09:00: Sustrai.
- 09:30: El Punto.  
Gonbidatua: Arnaldo Otegi.
- 10:00: Forum.  
Gonbidatua: Chumy Chumez.
- 10:30: Señorío de Lareña. Telesaila.
- 10:55: Esta es mi gente.
- 11:55: Bakea behar dugu. Saioa berezia.
- 12:05: Maité. Telesaila.
- 13:00: La cocina de Pedro Subijana.
- 13:10: Hijos de Chicago. Telesaila.
- 13:40: Loco por ti. Telesaila.
- 14:10: Informativo territorial.
- 14:28: Teleberri. Albistegia.
- 15:45: Lo que faltaba.
- 17:35: Cine Western.  
**Buchanan cabalga de nuevo.**  
Zuzendaria: Budd Boetticher. Aktoreak: Craig Stevens, Jennifer Holden. 1958.
- 19:00: Esta es mi gente.
- 19:55: Señorío de Lareña.
- 20:25: Da la talla en la pantalla.
- 20:58: Teleberri.
- 22:00: 100% Vascos.
- 01:00: Zinema.  
**A sangre fría.**  
Zuzendaria: Richard Brooks. Aktoreak: Robert Blake, Scott Wilson. 1968.
- 03:10: Lo que faltaba.
- 04:45: Forum.
- 05:15: Amaiera.

**irratia** ♦

**Bilbo Hiria.** Gaur hiru irratsaio eskainiko dituzte. Lehenengoa 10:00etan hasiko da, *Ibaizabal*, gizarte gaien inguruko magazina, eta 13:00ak arte iraungo du. Saio horretako kideek Durangoko Liburu eta Disko Azokarekin bat egingo dute azoka zabaldu bezain laster. Eremu Urriko Hizkuntzen VII. Nazioaterko Biltzarra egunotan Bilbon egiten ari direla eta, Patxi Juaristi soziologoarekin egingo dute berba. Arantza Urkaregi EHko zinegotzia ere izan-

go da gaur *Ibaizabal* magazinan, eta baita Unzalu Salterain EHNE sindikatuko ordezkaria ere. Mieltxo Monfortek eta Jabi Lauririk egiten dute *Ibaizabal*. Bigarren irratsaioa, berriz, 16:00etan hasiko da: *Nor da nor*. Ordubeteko saioa da, Anje Duhaldek egina. Elkarrizketa sakon bat egiten du saio horretan, eta gaurko gonbidatua Jean Haritzelhar euskaltzainburua izango da. *Nor da nor* amaitutakoan, 17:00etan, *Ziutateaz* kultur magazina hasiko da, Fer-

min Etxegoien eta Aitor Zuberogoiaren eskutik. Beste gauza batzuen artean, Pedro Elias Igartuarekin munduko musikaren gainean hitz egingo dute eta Iñaki Lazkano zinema adituak zinemaren aste honetan estreinatu diren zenbait filmen gainean hitz egingo du. Hiru ordu irauten du *Ziutatea* magazinak, hau da, 17:00etatik 20:00etara. Bilbon eta inguruko hainbat herritan entzuten da Bilbo Hiria, euskara hutseko irratia.